

**Z**uhaitz honek adarkadura irregular nabarmena du. Nahiz eta 20 metroraiko altuerara iritsi, askotan zuhaiskaren itxura izaten du. Haginaren adaburua piramidala izaten da eta nahikoa zabala. Adar ugari ia-ia

J. Terés



horizontal ditu, irregularki has daitezke-  
larik. Bere eiteak, kolore berde ilunak,  
enbor lodiak (gris edo arre gorriskak, as-  
kotan tira luze eta finetan zirrindatuak),  
nabarmentzen dute zuhaitz eder hau.

Hosto iraunkorrak eta azpialdetik berde horiskak ditu. Hagina espezie dioikotzat har dezakegu. Oin arrek hosto-galtzarbetan ematen dituzte loreak, konoak alegia. Oin emeatiko loreak (hazi-hasikinak) hosto-galtzarbetan jaiotzen diren pedunkulu laburreko muturretan egoten dira. Hazia heltzean erabat estaltzen duen bildukin mamitsu eta gorri batekin (hazi-ariloarekin) fruitu gorri eta deigarriaren baten itxura hartzen du. Negu bukaeran edota udaberri hasieran loratzen da eta fruituak urte bereko udaren azkenaldere edota udazkenean heltzen dira. Hedapenari dagokionez, Europako parterik handiengan, Asiako mendebaldean eta Afrikako iparraldean dago banatua, eta urri samar edozein lurzoru-motatan. Euskal Herriari dagokionez, sakabanatua dago mendialdeetan, lurzoru karetsuetarako joera duelarik. Aipatzekoa da zenbait aleren edertasuna eta bitxitasuna.

Bere egurra berriz, oso gogorra eta trinkoa izaten da. Bai altzarigintzan eta bai tornu-lanetan, oso erabilia eta preziatua da. Bestalde, aspalditik zuhaiska apaingarritzat erabili da eta jardingintzako hainbat barietate ezagutzen dira.

Zuhaitz honen zatiak, hazia inguratzen duen arilo gorria izan ezik, oso toxikoak dira eta, hala ere, bere hostoak emenagogo gisa erabili ohi dira, eta haziak berriz, narkotiko gisa.

Gure herriko mitologiari loturiko zuhaitza da. Kondairek diotenez, erromatarren kontrako gerretan, euskal gerrariak zuhaitz honetatik lorturiko pozioak bustitzen zituzten beren geziak. Bestalde, preso hartzen zituztenean hil aurretik fruituetatik lortutako narkotikoa hartze zutela esaten da.

# Euskal Herriko mitologiari loturiko zuhaitza: Hagina

Joxepo Terés

## FITXA TEKNIKOA

### Hagina

**Familia:** taxazeoak  
**Espezia:** *Taxus baccata*  
**Banaketa:** banatua  
**Habitata:** mendialdea  
**Sendabelarra:** bai. Toxikoa

